

* Hizpideak

Handia, herri txiki batean

Xabin Makazaga
emaila@berria.info

Euskara, soziolinguistika, politika, literatura... Herrigintza, finean, bere osotasunean hartuta. Ezinezkoa da Euskal Herri garaikidearen kronika bat egitea, Txillardegiri, Jose Luis Alvarez Enparantzari, maila goreneko leku bat eskaini gabe. Gutxi, hura baino gorago. Bide berrien urratzailea izan da jorratu izan dituen alorretan, eragilea, eta interaktual konprometitu eta koherentea. Euskaltzalea eta abertzalea, ororen gainetik. Euskal Herria euskaratik eta eus-

karaz eraikitzeko lanean eman du bizia. ETArek eta Herri Batasunaren sorreran parte hartu zuen, eta bere konpromiso politikoak eragotzi zion euskararen munduan aitortza instituzional handiagoa izatea. Baina haren emana ugaria eta oparoa izan da. Hizkuntzalaritzan eta soziolinguistikan erreferente ezinbestekoa da. Bera gabe, Euskal Herria ez zatekeen gaur egun dena izango. Eta, literaturan ere, *Leturiaren egunkari ez-kutua*-rekin bereziki, bide berrien erakusle izan zen. Estatu bat izanez gero euskara akaso salbatuko dela baina estatuturik gabe seguru baldin dela esan zuena estatua jaio aurretik hil da.

**Hitzbeste**

Anjel Lertxundi

Eskandalua

Orain hogeitaz urte ikusi nuen *Gilda* estreinako aldiz; asteazken gauaz, bigarrenaz. Bi ikustaldiotan, aspal-di hil zen ezagun batek kontatutakoa izan nuen gogoan: estreinatuta zuten egunean, ni bizi naizen herriko zine aretoaren jabeak ez omen zituen sarrerako argiak piztu, bezeroak kuxkuxero eta salatarien beldurrik gabe sar zitezten. Bazuen motiborik: goiz hartan, pelikula ikusiko zutenen kontrako mehatxu eta anatema sekulakoak bota zituzten herriko pulpituetatik.

Arratsalde, ordea, zeruak euria ekarri zuen, eta gaitz erdi: bezeroak ikusten ari naiz batera eta bestera begiratzeko; sarrerak erosten, gabardinetako papar-hegalak jasota eta aterkien babespean; aretoan sartzen, labezo-morro batzuen gisa.

Pelikula hemen estreinatuta zuten urtean jaioa naiz. Orduko giro itxiaren barne-muinetan. Zergatik ote ote zait jendea gehiago kirkilduko zuela Gildaren sentsualtasunak, jaso zuen belarrondoko entzutetsuak baino?

😊 Zaldieroa

De Rerum Natura

Zaldieroa@zaldieroa.com



Mila esker!

Sinesgaitzak eta sinesberak

Baita zera ere!» sinesgaitzetik «benetan?» sinesbera artean kabitzen dira gehienon uste eta irudipenak. Bateria edo besterako joera berezkoa dutenez aparte, aldagarriak dira. Ez da ohikoena gertakizun baten aurrean «baita zera ere!» esatetik «benetan?» esatera gazteek klikatzeko behar duen denboran pasatzea, baina ez da ezinezko. Kontrako norabidean ere ez. Inguruko argumentuek edo bi aldiz pentsatzeak eragin dezake baterako zein besterako bidea.

Aste honetan, ordea, izan dira bi albiste inoren argumenturik gabe edo pentsatzen izerditu gabe ere sinesgaitzenak sinesbera eta sinesberenak sinesgaitz bihurtzeko modukoak. Eta izan dira bi albiste, bigarren atala ezagutu bitartean uste eta irudipen gehienak mutur banatan bilduak izan dituztenak. Eta hemendik aurrera balantza alde batera zein bestera makurtuko dutenak: Biurdana eta Polloek gertakizunak.

Sinesgaitza behar du oso pertsonak bortxaketa bat gertatu

**Larrepetit**

Arantxa Iturbe

Polloen 34 urtean bisitatu duten alaba ez dagoela han jakitea ere albiste ona da

dela jakindakoan «baita zera ere!» esateko. Biktima ustekoak gezurra dela aitortu ondoren handiagoa izango da hurrengoan sinesgaitzen taldea. Sinesgaitz gehiago izango zen seguru asko Polloen lurperatuta zegoen haur jaioberriari buruzko ikerketaren aurrean. Zientziak han gorpuzkin arrastorik ez dela frogatu ondoren handiagoa izango da hurrengoan sinesberen taldea.

Mundua sinesgaitz eta sinesberen artean banatzeko ahalegin antzuetan itsututa, garrantzitsuena ahaztu dut, ohi dudanez. «Biurdanako albiste ona da», esan dit. Ez da bortxaketarik izan. Eta hori, sinesgaitz edo sinesbera, albiste ona da. Denontzat. Kezka eragin dit. Handia. Une batez, nahiago izan dudalako benetan gertatua izatea, hurrena bortxatzen duten emakumeak dobleko sufrimendurik izan ez dezan.

Polloen 34 urtean bisitatu duten alaba ez dagoela han jakitea ere albiste ona da. Sinesgaitzak sinesbera bihurtzeko besterik ez bada ere.

✉ Zuzendaritari

BERRIAK irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dituzte 1.400 karaktere baino gehiago izan behar, tarreak barne, eta **BERRIAK** mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Berria, Martin Ugalde kultur parkea, 20140 Andoain. Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: iritzia@berria.info.

Txillardegiren konfidentzia

2002ko ekainaren 30, igandea. Noaingo Batailaren urtemuga zen. Getzeko pilotalekuan ekitaldia egin berria genuen. Nabarralde ekimenaren lehen urteak ziren. Nafarroa, euskaldunon adierazpide historiko, politiko eta instituzionala, lurralde batasunerako eta independentziarako diskurtsoaren erdigunean ezarri beharraz jabetuta geunden.

Pilotalekuko ekitalditik ateratzerakoan Txillardegirengana jo nuen. Ekitaldira etorri izana eskertu, eta entzundakoz bere gogoeta eskatu nion.

Hitzez hitz, zehaztasun osoz, haren errana errepikatzeko ezinezkoa bazait ere, horrelako zerbait kontatu zidan:

«1958 edo 1959 izango zen. Federicorekin (Krutwig) batera Anacleto Ortuetaarengana joan ginen. Igorren zuen base-ria. Hark Nafarroaz zioenaren berri bagenuen, baina lehen eskutik jaso nahi genuen. *Nafarroa*, euskaldun guztien bilgune politikoa... Ulertu, ulertu genuen, baina diskurtso harendako beranduegi zela pentsatu ere bai. *Euskadi* indartsu zegoen eta horri heldu genion. Argi dago tronpatu ginela».

ETA sortzeko garaian erakunde hark ukan behar zuen oinarriko diskurtsoaz zihar-duela ulertu nion.

Kostaldekook ez garenok bederen, badakigu **BRANKA** sendo batek zenbaterainoko garrantzia duen.

Mila esker, Txillardegi. Euskaldun bizirik irauteko Nafar Estatuaz zor dizugu..

Gaizka Aranguren.